

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko Otsailaren 12a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Oderitz • Gazteek herriko eskola zaharra moldatu dute non bildu izateko.

Josune Rios • «Egungo gizartean nahiko galdua dago emakumea».

Ttipi-ttapa



telebistaren

ataka ekonomikoa

Bortzirietan emititzen duen Ttipi-ttapa telebistak arazo ekonomiko larriak ditu egun, hamar milioi pezetako zuloa baitu (400.000 libera). Horrela, ustez proiektu bideragarria zen arren, larri dabil egun.

Arazoari aurre egiteko, dirua biltzeko kanpaina hasi dute eskualdean. Ekimenaren bultzatzaileek, bertako erakundeen sustengu morala ez ezik, ekonomikoa ere eskatu dute aurrera egiteko. Dena den, udalek zer egingen duten ikusteke dago oraindik

Oderitz ●

Gazteek badute non bildu

Horretarako, herriko eskola zaharra egokitu eta igaro asteburuan inauguratu dute

Hamazazpi urtez itxita egon ondoren, berriro zabalduko da eskola zaharra. Ikasgairik ez da izango, baina aisialdia betetzeko aukera ezin hobea eskainiko die herriko gazteei. Horretarako, halere, lan gogorra egin dute.



Herriko eskola zaharra, berritua. ● MIKEL SAIZ

ODERIZKO ENPARANTZAREN ondoan dagoen etxe txikian, aspaldian, herriko umeak bildu ohi ziren. Irakasleak erakutsitako guztia ikasteko prest egoten ziren. Baina betidanik Oderitz herri txikia izan denez, orduan ere haur eta ume gutxi ziren herrian, eta irakaskuntzako erreformak beharturik, Larraungo gainerako umeen antzera, Lekunberriko ikastetxean hasi behar izan zuten ikasten. Han eskola handiagoa eta egokiagoa zuten, baina, halere, ez zuen Oderitzkoak zuen xarma berezi hura, herrietako eskola txiki guztiak duten xarma hori. Hauts artean galdu zen harrezkeroztik izpiritu hura.

Duela hamazazpi urtetik hona, oso gutxitan zabaldu dira eskola zaharreko ateak. Festetan baino ez. Biltegi moduan baino ez da erabili, eta, beraz, traste zaharrez beteta egon da. Gainerakoan, eraikina nahiko egoera onean zegoen, eta baita toki onean ere, herriaren erdi-erdian dago eta.

Eskolako garaian bezala, orain ere oso gazte gutxi dago Oderitzen. Hamabi baino ez. Eta Oderitz beste herrietatik nahiko aparte dagoenez,

herrian bertan bete behar izaten dute, gehienetan, beren aisialdia. Eta eguraldi ona dagoenean, tira, plazan bil daitezke. Baina eguraldi txarrarekin, ordea, ez dute non bildurik. Lourdes Saralegik dioenez, «hori ikusita, eskola zaharra konpondu eta gaztetxe baten tankerakoa egitea pentsatu genuen».

Duela urtebete otu zitzairen ideia hori, baina orduan ez zuten bitartekorik. Ez orduan eta ez orain. Lourdesek dioenez, «orain dela bost

urte hasi ginen lanean, gazte guztiaren artean. Larunbatetan biltzen ginen, eta batzuk paretak txukuntzen, besteak lurrak, leihoak... denon artean egin dugu». Horretarako, gazteetako baten aita igeltseroa denez, haren laguntza izan dute, baina, betiere, eskulana gazteek berek jarri dute. «Lana bazen ere, gustura egiten genuen».

Guztiei irekia

Eta hori guztia elkarrekin egin dute. Gutxi dira oderiz-

tar gazteak, baina haien artean elkartasun handia dago. Beste erremediorik ez omen dutelako, baina elkarren artean oso ongi konpontzen direlako ere bai. Orain, egoitza faltarengatik egiterik ez zuten beste hainbat gauza ere egingo dituzte, baina orain arteko ere eutsiko diete: esaterako, herriko jaien eta inoteen antolaketa. Izan ere, lehengo asteburuan ospatu ziren Oderitzen inoteak, eta aukera hori aprobetxatu zuten beren egoitza berria inaguratzeko. Oderiztar nagusiak ere hurbildu ziren inauguraziora, eta pozik agertu omen ziren gainera.

Saralegik dioenez, «oso pozik daude, elkarturik gaudela ikusten dutelako, eta ongi iruditzen zaie eskola zaharra konpondu izana. Pena ematen omen zien egoera horretan ikusteak, eta orain, bizitasun pixka bat emango diogula uste dutenez, gustura daude».

Halere, oderiztarrek argi utzi nahi izan dute berenak ez duela izango ohiko gazteetxeak duten konnotaziorik. Gutxiago direnez, ahalbide gutxiago izango dituzte. Dena den, ateak ez dizkote inori itxiko. Gazteek berek duten izaera sano, alai eta jatorra izango du gazteen biltoki horrek.

→ Urko Aristi

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Bazen garaia. Auskalo noiztik ez ginen Euskal Herriko biztanle guztiok bategini egoten erakunde bakar batean. Pasa den larunbatz geroztik ordea, Euskal udalerrien batzarreak euskalherriar guztiok batzen gaitu. Gutxienez, denok bertan egoteko aukera dugu. Batzuentzat 666 hautetsi biltzea diabolikoa izan daiteke. Besteontzat, berriz, horrelako zenbaki borobila, bi aldeetatik irakurria emaitza berdina ematen duena, suerte onekoa da.

Ez dira inoiz Euskal Herrikoak eta inguruko herrietako sineskeriak berdinak izan. Beraz ezin da modu berean baloratu larunbateko batzarrea Parisen, Madrilen edo Euskal Herrian bertan. Besteontzat kezkarria dena guretzat

Bazen garaia

ona da. Madril eta Pariseko begiekin ikusten duten gure luraren saltzaileek kontuak atera beharko dituzte berriz ere. Leringo konteek eta beamontesek hain dira betoker, beti kanpora begira egonik, hain dute lepoa makurturik, ez omen dutela gu ere hemen gaudela ohartu nahi.

Horiatariko batzuek ezabatu nahiko lukete, bertako nortasunarekin batera, gure hizkuntza, eta bapatean gurekin topatzean ikaratu dira. Horrenbeste errepikatu ondoren, azkenik sines-turik zeudela beraiek ere. Hilik ginela uste zuten. Gurekin gero, aurrez aurre topo egitea mamutzar-prozesio baten agerpena iruditu zaie.

Beste batzuek uste zuten urrun bizi ginela

eta horrexegatik Burgos gertuago zegoelakoan hara igorri gintuzten biltzera. Gizajoak! Ez gara hemendik mugitu. Hemen egon gara beti. Erromatar hauek erotuta daude. «Domuit vascones» behin eta berriz esaka eta errautsetatik ere berpiztu egiten gara noiznahi.

Eskolara joan beharko dira berriz erdal-herrikoak. Berriozarretik ez da Burgosek katedra-lea ikusten, Iruñekoa baizik eta Gaztelu plazako bi atso eta Zabalguneko agure bizardun bat, hiru dira osotara eta Nafarroako 93 herriko ordezkariak gainerako euskalherriarrek bildu nahi izatea ez da ahuntzaren gaueko ez-tula.

Kontua da hemen ginela, hemen gaudela eta inora joateko asmorik ez dugula. Garai berriekin, gainera, gehiago izanen gara.

Bortziriak

Kautereak,
inude eta
artzainak, zaku
zaharrak eta
mozorroak

ARANTZA ETA IGANTZIN JADANIK ospatu dituzte Inauteriak, baina Etxalar, Lesaka eta Beran asteburuan eta hurrengo astearen hasieran egingen dituzte. Bihar hasiko dira Inauteriak Beran, kautereen etorrerarekin. Ilunabarrean Ilekuetatik abiatuko da kautereen konpartsa, eta, herriko karrikak zeharkatu ondoren, Berako Herriko Etxeko plazan bukatuko dute. Arratsean, Lesakan bilduko dira Inauterietako mozorroak. Igandean inude eta artzainen konpartsa aterako da goizeko 10:30etan Eztegaratik. Igande arratsean, Lesakako zaku zaharrak aterako dira bertze urte batez kalera. Orotara 40en bat zaku zahar aterako dira.

Baina Inauterietako egunik handiena astelehena da hiru herrietan. Lesakan, goiz-goizetik aterako dira koadrilak euren orga eta jantziekin. Beran, aldiz, goizean zingar-arraultze eskean aterako dira gazteak puska biltzen. Etxalarren, azkenik, gai bakarraren inguruan aterako dira mozorroturik, nahiz eta orga diferentek aurkeztuko dituzte.

→ Jon Abril

Lizarra • Gaitaren aitari omenaldia

Julian Romanoren mendeurrena ospatuko da

Urte osoan izanen
dira Ega ibaia
zeharkatzen duen
hirian Julian
Romanoren
heriotzaren
mendeurrena
ospatzeko ekitaldiak.

JULIAN ROMANO UGARTE 1831. urtean jaio zen Lizarrako Espoz y Mina karrikako 12. zenbakian. Gazte-gaztetatik erakutsi zuen musikarekiko zaletasuna, eta hainbat urtetan musika ikasten jardun zuen gaitasun apart hori zela eta. Baina gaita ez ezik, Julian Romanok biolina eta pianoa ere ederki asko jotzen zituen. Musikari berezia izan zen; soinularia, apainlaria, gaita eta muturtxo egilea eta musika irakaslea. Alderdi musikal guztiak menperatzen zituen eta guztietan nabarmendu zen. Haatik, gaita izan zen Julian Romano ospera eramanean zuen musika tresna; izan ere, ordu arte tresna horren inguruan zegoen tradizioa jaso egin zuen. Salvador Martinez Lizarrako gaitaria-



Lizarrako gaitariak Julian Romano izan dute maisu.
● LUIS AZANZA

ren esanetan, Romanori esker gaur egun garai hartako eta antzinako hainbat soinu ezagunak ditugu. «Momentu honetan gaitari guztiok jotzen ditugun doinuen %90 Romanok jaso zituen. Beraz, gaitaren sortzailea ez bada ere, bere lanari esker iraun du gaitak bizirik. Gure aita da».

Lan oparoa eskuizkribu multzoan jaso zuen Julian Romanok hil aurretik. Bertan, antzinako doinuez gain, bere konposizio propioak ere idatzi zituen. Maisua 1899. urteko abenduaren 8an hil

zen. Orain, ehun urteren buruan, gaitari honen goraitzeko helburuarekin, ekitaldi aunitz prestatu dira Lizarran.

Kontzertuak, hitzaldiak, ekitaldi multimedia eta literatura jardunaldiak izanen dira. Dena den, nagusiki bi ekitaldi izanen dira aipagarri. Bata, musika konposatzeko lehia-keta, eta bertzea, Lizarrako musikari buruzko liburu sorta baten argitalpena. Lehenengo liburuak Julian Romano izanen du aztergai

→ Kristina Berasain

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Baionako katedrala berritzen

Herria astekariak Baionako katedrala berritzeko hasi diren obren berri ematen du azken zenbakiko orrialdeetan: «Obretan da Baionako katedrala bultza bat honetan jadanik. Indar berri bat hartzen dute lanek negu honetan dela kanpotik dela barnetik ere. Baionako apezpikuaren eliza aulkia ez da nola nahika berritzen haatik. Obra horiek azkarki zainduak dira katedrala munduko ontasun ekarria baita».

Obren berri zehatza jasotzeko, Joseph Camino bikario nagusiarekin mintzatu da **Herria** astekaria, eta ondokoak dira Caminok errandakoak: «Kate-

dral hau miresgarria da berenaz eta nihaurek miretsi dut bost urte egona bainaiz hemen erretor, ezagutzen dut frango poliki eta maite dut. Gure elize-tan ederrenetarik dugula hau, nahi genuke bizi leku bat izan dadin, elizkizunak egin daitezten hemen aitzina dela parrokiaren dela diosesa guziaren kondu».

«Orain seguritate baldintza biziki zorrotzak ezartzen dituzte: sekulan sua lotzen balitz honenbeste ate eta ideki-dura behar litekeela eta beste, sekulako prekozioeak galdatzen dituzte, apur bat sobera ene iduriko; ene nahia da

obra horiek aitzinatzearekin kontzertu ederrak ere berriz has daitezten hemen», dio bikarioak.

Katedralaren historia aipatuz ematen dio amaiera **Herriak** artikuluari: «Katedrala ez da oraiakoa. XIII. mendean eraiki zen. Iragan mendean xahar-berritu. Azken hamar urte hotan, egundainokotan obra gaitzak akulatu dira, gobernuak hortarako xahutuz 40 miliun. Junta ainitz azkartu behar izan dira, elektrika muntadurak berritu, dorreak erre berritzen ari, helduen urteko ezki-lak berriz beren tokian ezartzeko gisan».



Xabier Larraburu

urdai
aren
mintzoa

Elurra eta Tibet

Gaur elurra ari du Iruñean. Elur maluten mara-marak oso oroitzen txarrak dakarzkite. Gutxi dakiten arren, hamabi urte eman ditut nik Tibeteko monasterio batean ikasten. Hamabi urte ikasten eta ez nuen titulurik lortu. «Tontoa halakoa» esango duzue, baina zer dakizue zuek monasterioetako azterketez? Tutik ere ez! Orduan zer ari zarete! Han ikasketak ez dira NUP-ekoak bezala, aizue. Han azterketa bakarra egiten dizute, bakarra! Bat! Nirea oso txarra izan zen. Eguna ailegatu zenean monasterioaren patiora jaitsi nintzen, laranja kolorez jantzia, nire irakasle zaharren ondora, azterketa egitera. Bakarrik geunden patioan. Zoluaren gainean, han eta hemen multzo txikietan, oraindik ere *tutplik* festetan erabiltzen diren *naprayak* nabarmentzen ziren. Hasiera batean azterketa erratza hartu eta hura guztia jasotzea izan behar zela pentsatu nuen eta guzti. Baina ez. Ekialdetik mendi tontorretan dauden *prusapalak* txuri kolore orori deskantsua ematen zioten beraien kolore argiekin. Honekin guztiarekin, noski, irakaslearen aurrean behatzaile zorrotzaren trazak mantendu nahi nituen, baina ez nuen lortu. «Utz itzazu *tutplik* eta *naprayak* eta *prusapalak* bakean eta zatoz hona! -errieta egin zidan agurak- Gainera nork esan dizu mendi tontorrean agertzen diren haiek *prusapalak* direla. Hori *Tibet air linesen* iragarki erraldoi bat da eta ni jaio aurretik paratu zuten han!». Ikusten duzue, telepatiak abantailak eta desabantailak baditu. Bere hitz jakintsuen aurrean burua makurtu behar izan nuen. «*yak* esnearen garratzasuna» -esan zidan. Ni putatidea. Baina ni putatidea! Hori noiz eman genuen? Bigarren edo bosgarren urtean? Hemen esan behar dut bigarren eta bosgarren urtean piper dezentegina nituela eta noski... Zerbait eskatu nion. Haserre, «elurraren txuria» bota zidan hortzak itxirik. Zer edo zer erantzun behar nuela «*topleyamaren* usain ona» esan nion, eta berak «ez». Eta akaba azterketa eta dena. Iruñera bueltatu nintzen eta elurra egiten duenean nire irakasle zahar hartaz oroitzen naiz, eta hari buruz zer edo zer kontatzeko gogoia pizten zait. Barkatuko didazue.

Ttipi-ttapa telebistaren ataka

Dituen arazo ekonomiko larriak gainditzeko eta proiektua aurrera ateratzeko, diru bilketa kanpaina abiatu du Bortziritan



Ttipi-ttapa telebistako lantaldea, du Fernandez aurkezlea barne.

Bortziritan emititzen duen Ttipi-ttapa telebistak hamar milioi pezetako zuloa du egun (400.000 libera). Ondorioz, ustez proiektu bideragarria zena, larri dabil egun. Arazoari aurre egiteko diru bilketa kanpaina hasi dute eskualdean. Ekimenaren bultzatzaileek, bertako erakundearen sustengu morala ez ezik, diru laguntza ere eskatu dute aurrera egiteko.

BORTZIRIETAKO TTIPI-TTAPA telebista joan den urteko ekainaren 15ean hasi zen emititzen. Berako Herriko Etxeko beheko solairutik. Garai batean espetxea izandako gela baliatuz, Udalak utzitako tokian atondu zuten estudioa: kamerak, argiak, nahasketa mahaiaik... Finen, telebista bat martxan jartzeko beharrek guztia.



Jose Manuel Irigoien

«Kanpaina urtarrilaren bukaeran hasi genuen. Herri bakoitzean taldeak sortu dira eta lantokian, etxetxe, aportazioak egitea eskatu da Fundazioarentzako. Finkatua dago 500 laguntzaile 12.000 pezeta buruko, gisa horretan bilduko delako 6 milioi pezeta. Kanpainak helburuak beteak ditu Etxalarren».

dirulaguntza publikorik gabe edo arras dirulaguntza publiko gutxiarekin».

Telebistak orain arte egin duen ibilbide pezeta bat hartu gabe izan da, baina orain aurreikusitako dirulaguntza batzuk huts egin dutenez, kasik hamar milioi pezetako zuloa du.

Hilabeteko kanpaina Bortziritara hedatzen den telebistak 20.478.958 mi-

lioni pezetako aurrekontua du aurten (820.000 libera), baina dituen asmoak gauzatzeko ez ezik (Frain mendiko antenaz gain beste bi, bi langile berri hartzea...), duen azpiegitura mantentzeko ere behar du dirua. Aurreikusita dituen sarrerek ez dute inolaz ere aurrekontua estaliko. Nafarroako Gobernutik iragan urtean 800.000 pezeta besterik ez zituen hartu eta Europako Batzordeak bost milioi pezeta. Diru hori Eremu Urriko Hizkuntzen programatik lortutakoa zen eta orain diru iturri hori aldatu egin dute eta bateratu egin behar dituzte kulturari dagozkien egitasmoak. Hori gertatu artean etenda daude eta ez dakite aurten noiz aterako diren. «Ez dakigu noiz aterako diren eta ateratzen badira inguruan horrelako proiektuak ere badaude: Xorroxinek eta Xaloak aurten ez dute hartuko. Denak egoera berean gaudelako», azaldu du Irigoienek. Gainera, Nafarroako Gobernuak euskaraz argitaratzen duten komunikabideentzako 39 milioi pezetako aurrekontua ez du azken bost urteotan igo, eta aldiz, eskaerak gero eta gehiago dira komunikabide berriak sortzen ari direlako. Horrek esan nahi du izoztu ez ezik, hurtzen ari dela. Bestalde, Garalur nekazal eremuak garatzeko lan egin duen elkarrekin hiru mi-

Leitzako asoa, geldirik

Ttipi-ttapa telebista kinka larrian da, baina, bestalde, Leitzan Karrape Udala Irratiaren arrimoan telebista bat bultzatzeko asmoa ere bada. Herriko Vidicom produktorak joan den urteko martxoan aurkeztu zuen proiektua Leitzako Udalean, baina, Joxean Perurena, Vidicom produktorako kideak dienez, geroztik aldaketa ugari izan dira. Duela bost urte martxan jarri zen Karrape Irratik esperientzia eta zegoen azpiegitura aprobetxatuz proposatu zuen Vidicomek irratiari telebista gehitzea. «Produktorak badu material bat, eta antena ere badago Goiko Gainean. Hori guztia aprobetxatuta martxan jar zitekeen». Bestela, badakite Leitzan telebista bat garestia eta

biderazina» deratiak 3.200.000 pezeta aurrekontua du (128.000 lib. egun, lau ordu emititzen dueneko proposatu zuen irrati-produkzioa zerbait jaiste egile gehiago kontratatzea. Bako aurrekontua lau milioi eta pezetakoa litzateke. Zati bakarra irratiarako jarren dituenen luke, eta gainontzekoak baten eta publizitatearen bidez litzateke. Astero ordu eroprograma eginen luke eta Ttipi-ttapa mintzatuak diru-produkzio hori hedatuko lukeen berri batean sartzeko. Bien trukaketa bat egon litzateke. Perurenak dienez, Ttipi-ttapa produkzioa Leitzan alde hartzeko mol-

daketa teknikoak 600.000 pezeta kostatuko litzateke eta. Dena den, Udalak ez du asmoa oso argi ikusten. «Esaten du nahiko garestia dela, eta lehenik irrati finkatu egin behar dela. Gogoratu behar dugu orain bost urte hasi zirela bertako informazioa suspertu nahian, eta momentu honetan nahiko hotz ikusten ditut», dio Perurenak. Aldiz, Vidicomek uste du irrati nahiko mugatua dela, eta bide hori zabaldu behar dela. «Telebistaz hitz egitea gehiegi litzateke. Gurea programazio bat osatzea eta material bat aprobetxatzea litzateke. Eginen genukeena da saio bat astero. Hori bada bideragarria ekonomikoki, eta eskualdeak eskatzen du», adierazi du.

lioni pezeta emanen dizkio proiektu berria izateagatik, eta publizitate, ttipi txartel-etik eta bideo salmetetik osatuko dute hamar milioi pezeta arterako bidea. Aurrekontua osatzeko geratzen zaizkion kasik hamar milioi pezetak ibeltzaren bukaera hasi zuten kanpainaren bidez eta inguruko erakundeetatik lortu nahi dituzte. Kanpaina Bortziritako bost herrietan, etxetxe, egiten ari da: Arantzeta, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakan eta otsailaren 22an bukatuko da. Hel-

burua da Bortziritan urtean 12.000 pezeta ordainduko duten 500 laguntzaile izatea guttienez. Eskualdean 8.354 lagun bizi dira eta biztanle kopuruaren arabera Berak eta Lesakak jarri beharko dute gehien, beti ere kanpainaren helburuen arabera. Orain arte kanpainaren xedea Etxalarren bakarrik bete da. «Kanpaina urtarrilaren bukaeran hasi genuen eta arras maldan gora doa. Herri bakoitzean taldeak sortu dira eta lantokian, etxetxe, aportazioak egitea eskatu da

Fundazioarentzako. Finkatua dago 500 laguntzaile 12.000 pezeta buruko, gisa horretan bilduko delako 6 milioi pezeta. Kanpainak helburuak beteak ditu Etxalarren. Problematikoagoa da Bera edo Lesaka. Herri txikietan errazago biltzen dako dirua», azaldu du Irigoienek.

Jose Ramon Amoros:
«Ttipi-ttapa telebistak sustengu ekonomikoa eskatu dio Mankomunitateari eta emanen dio. Ez dut zalantzarik. Aldizkariari ia-ia lau milioi pezeta ematen dio eta telebistarako ere izanen da».


ten. Mankomunitateak ezin du defizit hori guztia bereganatu», gaineratu du. Bestalde, kanpaina txalotu egin du. «Hagitz ongi ikusten dut baina ezin da planteatu ez duelako Mankomunitateak laguntzen. Irakurketa faltua da», azpimarratu nahi izan du.

Amorosen ustez, euskararen normalizazioarako beste ekimenak laguntzen diren heinean honek ere merezi du. «Proiektu egokia da eta aukera bat eman behar zaio sortu berria delako», dio. Ildo beretik, Manuel Iriarte Berako alkateak telebistaren garrantzia nabaritu du baina hasieran ez zitzaizela dirurik eskatu gogoratu du. «Telebista egiterakoan zonaldeko alkateekin hitz egin zuten eta sustengua eman genien, dirua ez zitzaigun aipatu ere. Duela hogeitun egun inguru deitu zitzaigun bost alkatetako arazoaren berri emateko. Egoera ekonomikoa larria zela eta horrela denbora gutxi iraun zezakeela esan zitzaigun», gaineratu du. Iriarteren arabera, udalak oraindik ez omen dute gaia ukitu. «Pentsatzen dugu Ttipi-ttapa jarraitu behar duela. Nondik? Berrit hitz egin beharko da lasai eta argi», bukatu du.

Irene Arrizurieta



MIKEL SAIZ



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Euskal Erria-ko kolaboratzaile italiar berezia: Edgardo Mortara

Edgardo zuen benetako grazia, nahiz eta gurean erlijioso izena soilenean ezaguna gertatu, Pio Maria alegia. Bolonian 1851.eko abuztuaren 27an sortu zen, judutar ezpaleko Mortara sendiaren altzoan. Ana zeritzan neskamea, ordea, katolikoa zuten etxean, eta haurra larriki gaixotu zen batean sendatuko bazen, bataiatu behar zela, eta halaxe egin, bere kabuz eta izkutuki...



Neskamearen ardurak edo osatu zuen haurra, bai, eta ohiko aitortea jakinaren gainean jarri zuen bezain fite. Boloniako apezpikua zen Gaitan Teletti bazen Mortaratarren etxean haurra berekin eramateko prest betiere Pio IX.aren aginduz. Gurasoek ezetzik borobilenarekin ihardetsi bazioten ere, Edgardo txipia Erroman zegoen jada 1858.eko ekainaren 24erako. Europa gehieneko egunkarietan gaia azaleratu zen goriki altargarri, baina Pio IX. Aita Santuak arazoa aisa argitu zuen bere aldera joaz. Hortaz, Mortara gaztea eliz katolikoaren magalean sarturik dugu betiko, 15 urterekin San Agustinen kanonigo erregularren jantzia aukeratuta, harrez geroz Pio Maria izanen zelarik.

Erroman izan zen 1870.era arte. Orduan, Biktor Manuel II.ak Vatikanoren hiria hartu zuenean, urriaren 22an Austriara eskapo egin zuen, Brixengo Neustift fraidetxera, Tirol erdian. Hantxe, Juan Krisostomo Mitterutzner hizkuntzalari izan zuen irakasle. Austrian bi urte emanda, Frantziara aldatu zen gero, Poitiersko Pie apezpikuaren babesean Beauchénean egin komentu berrira, non, beharrek adinera iristeke, Aita Santuaren baimenarekin apeztezu zen 1873.eko abenduan. Gurrera 1884.ean iritsi zen Frantziako III. Errepublikarekin indarrean ezarri lege laikoetatik ihesean, eta Altsasun 1909.ez geroz eman zuen urte inguruko bulta laburra izan ezik. Oñatin eman zuen denbora gehiena, harik eta 1911.ean Belgikako Liejara joan arte, non 1940.eko martxoaren 11an zendu zen.

Ez zen arrotz sentitzen Mortara Euskal Herrian, eta iritsi orduko euskara ikasteari ekin zion, baita euskaraz eta euskarari buruz idazteari ere. Mantrolak sortu eta orduan Arzakek zuzendu *Euskal Erria* aldizkarian 1888.etik 1911.era arte agertu zituen lan guztiak aski argi aditzera ematen diguten legez: «Nere jayotzaz euskalduna

ez izan arren, naiz euskalduna biotzez, eta egunetik egunera euskaldunagotzen ari naiz. Nere erritik erbestetuta, naigabe ta samifitasun aundien artean arkitzen nintzanean, ama euskerak bere biotz bigun eta beraa eta bere besoak zabaldu zizkidanetik, eta bereganatu ninduenetik, nere erria bezelaren ama euskera». Unamunok pertsonalki ezagutu zuen -hala baieztatzen zigun bederen *Contra esto y aquello* liburuan-; Zestoako bainuetxean izan zen, non ordenak Oñatin eraiki nahi zuen monastegi berrirako sosen eske zebilen Mortara. Unamunok Mortarak euskalduntzeko eginiko ahaleginak ez zituen zailtzan jartzen, bai ordea hauen lorpenak, eta italiarrak Gernikan ogutzitako sermoi traketsa aipatzen zigun frogagisa. Ezagun da Unamunoren seta euskararen gaian, eta arrazoirik faltatuko ez zitzaiokeela onar daitkeen arren, arras kontutan hartzeko lekukotasuna ezin eduki, areago Mortararen idazkietan irakur daitekeen euskara behin leiturik. Berriki berrargitaratua izan den *El linaje de Aitor* lan klasikoan ez zigun aipatzen Juaristik fuerozale integristen artean -nahiz ia seguru den ezagun duela-, eta aldiz, ikusi besterik ez da egin behar Mortararekin harremanetan izan zirenen zerrenda: Arana, Arrese-Beitia, Arzak, Campión, Etxegarai, Orkaiztegi, ... Bestalde, euskal letretan egun ezegun zaigun izen bat eman zigun, hau da, Mortarari bere esku-izkribuak erakutsi zizkion Donostiako Jose Gaspar Oregi apezpa; eta dudarik ez da Fernando Urkia arbizuarra ezagutu zuela Altsasun eta Oñatin, ez bada kiguru ere, apezgai gaztearengan zein neurritan izan zezakeen eragina.

Gai linguistikoez ihardun zuen Mortarak gutxi gehien, eta ohar labur batean, euskara, euskalduna, erdara eta erdaldu-na hitzen etimologia behin



emanda, «Idiosincrasia y germanismo del idioma bascongado»

izenburuko artikulu andana luzanga eskeini zigun: «Energico es el idioma euskaro en sus palabras, en sus frases, en el hipérbaton y giro y construcción del periodo, y en algunas palabras y expresiones onomatopéyicas que imitan y remedan la naturaleza en sus variadas y múltiples manifestaciones». Ez zitzaigun zientifikoa agertzen gure italiarra, eta itsu-itsuan sinisturik aipatzen zizkigun iturrien artean Astarloa, Erro, edota Larramendi zeuden. Eite berekoak ziren «*El bascuence y el sanskrito*», «*El bascuence en el extranjero*», «*La Euskal Erria y el Tirolo austriaco*», «*Lenguas vivas*» eta «*Gure euskaria: filosofía y estética del idioma basco con referencias filológicas a otros idiomas*» artikuluak.

1909.ean «Piztu ta bizi bedi gure euskaria, orduan zera izango zu, bai euskalduna!» euskararen aldeko hainbatetan aipatua izan den manifestua agertu zuen, ber aldizkariaren orriotan: Bergarako Bizente Monzon Lardizabalaren erantzuna sortarazi zuena -honakoa euskal idazle apala genuen, 1910.eko Euskal Esnalea-n atera *Iru ipuichoren* egilea-.

Euskaraz agertu zituen lanak literarioagoak ditugu, bereziki olerkiak -Onaindiak Mila euskal olerki eder bilduman jaso zituen batzuk-: *Aranzazuko ama birjñari*, *Aranzazuko amari*, *Erroman poza eta malkoak*, *Jesusen biotz gozo-gozoari*, Arzaki igorriko aurkezpen-gutuna edota *Pio IX.garrena aurcho baten salbatzalea* izenburupean eskeini zigun bere autobiografia bera: «Ogeitamazazpi urte dira Italiako Bolonia zeritzan erri andi batean guraso Judutargandik jayo ta Edgardo izendatutako aurcho

etorri ahalean

Patziku Perurena

Zakurraren putza!

JOAN DEN OSTIELA BATEAN puzker kontuak leitzen aritua nauzu, gripearekin oheratua nengoela, eta oroipen eder batzuk ekarri dizkit, gure artean atzenaldera arrotz samar bihurtu den gas noble unibertsal honek.

Ni mutikotan, auzoko artzai batekin, Benaibordako Julianekin, joaten nintzen arditara askotan. Hura aurretik eta ni atzetik, haren alkantzoari nere hanka ttikiakin ezin segin erdilasterka. Halako batean: «*parrat!*» botako zidan, eta parrez, hala esan segidan: «*duro bat emattera, puntan bi korapillu itten battik*». Eta nik, nere inozentzi osoan, harriturik: «*baita zea re! puzker bateri puntan bi korapillu?*» kontesten nion, duro irabazi ustekoa bapatean galdua neukala konturatzean. Orduz geroztik naitzela uste dut erdifilosofo.

Beste pasadizo bat, putzaren gainekoa, aitari aditua dakit. Behin, auzalanez bide konpontzen ari zirela ailegatu dira Tronpatako Iturrira eta, eseri dira lagun koadrila iturri ondoren berentzera eta, beren berendu pizarra egiten ari direla, halako batean, lagunetako batek sekulako putzu bota, eta osaba zena Felix Exkurrenekoak, ez zuten itxura denez sobra haundirik izanen jateko eta: - *Uff, au putzusaia! Auxe obe diu, gazta puskat biño!*

Eta aldamenetik, Auxonbordako Joxentonio Zubirik, zerbait zelebre esan aurretik ohi zuen bezala, sudur mizpirak betean arnasa hartuz: - *Bai, laun askori partitzeko bai enpe!* Umetan ikasi nituen kontu horientatik edo, auskalo zergatik, sorkari filosofikoa iruditu izandu zait *puzkerra* beti. Gure gizaeren eta aldardeen zelatari eta salatari hantzoenetakoa, eta askotan, harrapatzen gaitu gainera larrugorritan, abere giza-jotuak bagina bezala.

Zenbat aldiz ez dut aditu jendea, esate bateko, errepresioaz asmahalak eta bost esaten. Nork bere puzker bati errepara-

tzeko injeniorik izan ez duenean, ordea, nola hitzegin inoren errepresioaz? Deusek erakusten ahal du, ba, gure gizaeraren errepresioa, puzker batek bezain ederkil? Errepara ongi zeure puzkerrik isilenari ere, eta zeure buruaren ikerlerik finena bihurtuko zara.

Euskaraz ongi bereizten ditugu puzkerra eta putza. Puzkerra, etimologi zaleek diotenez, *putz ederra* omen da; *putz* hutsa berriz, emeki ixildua, fama gaiztokoa izandu da beti gure usuarioan. Horixe erakusten digu «*Zakurraren putza!*» esaiarak: *gezurra dela inork esandakoa*. Sorrrera polita du.

Garai batean, sukaldean edo jendea biltzen zen lekuan, zakurren bat han izanen zen urrutu gabe, eta asnasa mozteko moduko putz ixilen bat inork botzen bazuen, beti zakurrari kulpá: «*pasa txokora! zakur tzar barrenustelduok! puff hau usaia! utikan zakurra!*». Eta, bien bitartean, parrurritxean elkarri begira denak gezurti bila. Hartatik gero, «*Bai, zakurraren putza!*» delako esaierra.

Beste esamolde eder bat ere, aditua nago askotan, goizuetarren ahotan, baten batek zerbait isilean pasa edo erdizka esaten duenean, baliatzen dena. Hona adibide batzuk: «*loteria tokatu zila Matteori!? Urde alua, etzeak niri holoko putz haundik esan!*». «*Estadun dola Mikela!? Ezkontzen zelakoa bai, biño, etzeonan holoko putz haundik esan gure amari*». Esamolde eder horietan ere, *putz haundia*, nolazpait isilean pasatuko kontua duzu.

Baina, zakurrak ez du deusen kulparik, eta esan liteke, gure bizitza haizazu hau bera, puzker bat bezain arraroa eta pasakorra dela. Puzkerra baita, azken batean, gure arteko patxada, lotsa, itxura, nobleza, txuleria eta abar neurtzeko metrorik bapatekoena, eta deskuidatzen bazara, neurtu nahi ezak berak neurraraziko zaitu gainera zorrotzen eta abudoen.

Ziria

• Motxorrosolo •

Ametsak

LIZARRA, GARAZI, IRUÑEA, MALTZAGA... SARRIREN BI PUNTUEN arteko distantziarik ederreana barne mugetan. Bizitza ametsa da, eta guk ametsetan bizi behar dugu.

Josune Rios ☉ Mandragora emakume taldeko kidea

«Egungo gizartean nahiko galdua dago emakumea»

Iruñean emakume gazteen elkargune izateko sortu berri den Mandragora taldeko kidea da Josune Rios. Euren kezka eta arazoak bideratzeko eta eztabaidatzeko gune izan nahi du Mandragorak, Riosen irudikoz, emakume gaztea nahiko galdua baitago gaur egungo gizartean.



MIKEL SAIZ

soslaia

SORGINEK ERABILTZEN ZUTEN belar baten izena jarri diote taldeari. Josunek argi esan du euren helburua ez dela inor sorgintzea, berak eta bere gisako gazteak jazozen dituzten arazoak konpontzea baizik.

➔

■ **Mandragora taldea sortu berri duzue. Zein helburu-ekin?**

Andrea 'taldetik ikusi genuen, emakumeak, eta, batez ere, gazteak, eskatzen zituztela hemen eskaintzen ez zitzaizkien baliabideak eta irtenbideak. Gazteok hainbat arazo ditugu, emakume helduek bereak dituzte, eta guk geureak. Hori ikusirik, elkartu ginen neska talde bat, eta Mandragora sortu dugu. Joan den urteko ekainean hasi ginen elkartzeko. Andrea emakume elkartetik sortuak gara.

■ **Nondik atera duzue izena?**

Antzina sorginek sendabelar eta afrodisiako moduan erabiltzen zuten landare bat da mandragora. Sorginak izan zirenak euren artean hitz egiten eta ekintzetan aritzen ziren emakumeak besterik ez ziren. Uste izan genuen izen egokia zela emakumearen gaiak landuko dituen talde batentzako.

■ **Andreak, nolabait, emakume helduaren esparrua**

hartzen du, eta zuek emakume gaztearena. Zein dira emakume gazteon kezka?

Emakume gazteak dituen arazo gehienak landu nahi ditugu. Ikusi dugu emakume gazteen artean langabezia oso garrantzitsua dela. Datuak ikusi besterik ez dago, emakume gazteak dira langabezia gehien pairatzen dutenak. Era berean, Nafarroan azken urteetan asko ugaltu dira anorexia eta bulimia kasuak, irudiak asko eragiten du gizarte honetan eta horri ere erantzun nahi

genioke: sexualitatea, autoestima... Hama sei urtetik hogeita hamar urte arteko emakume gazteak geureganatu eta lagundu nahi ditugu. ■ **Esan duzu langabezia dela emakumearen arazorik larriena. Zein asmo dituzue horri**

aurre egiteko?

Argilan lan aholkularitza taldeko mutilekin elkarlanean gabilta, bi taldeak batera zer-nolako irtenbideak atera ditzakegun begiratzen ari gara. Dena dela, oraindik hasi besterik ez gara egin.

■ **Tratu txarrak ere aipatu dituzue. Joan den astean Biolentzia Sexistaren Aurkako Plataformak**

Josune Rios iruindarrak 20 urte ditu, eta Hezitzaileen Eskolan ikasten ari da, Iruñean. Emakumea izanik, beti kezkatu izan dute emakumearen inguruko gorabeherak. Eskolan Andrea emakume taldean praktikak egiteko aukera eskaini zioten, eta orain Mandragoran murgildu da buru-belarri.

Andrea-ren laguntzarekin sortu badira ere, aparteko taldea direla azpimarratu dute. Oraingo 25 emakume daude Mandragoran, 16 urtetik 30 urtera bitartekoak. Era berean, badute abokatu eta sexologo talde bat.

Alde Zaharrea, Navarrerria kaleko 15 zenbakiko 1. solairuan du egoitza Mandragora taldeak. Bulegoa ostegunetan eta ostiraletan egonen da zabalik: 10:00etatik 13:00etara goizetan, eta 18:00etatik 21:00etara arratsaldeetan. Telefono zenbakia 948-22-56-18 da.

txosten bat aurkeztu zuen Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordean horrelakoak gehiago ez gertatzeko hartu beharko lirakeen neurriak proposatuz. Txostenean aipatzen zen iaz 158 eraso fisiko jazo zituztela emakumeak eta beste 104 psikiko. Arlo horretan lan egiteko asmorik baduzue?

Bai. Gizartean uste da emakume ezkonduak eta helduek bakarrik jasaten dituztela tratu txarrak, baina frogatuta dago emakume gazteek ere jasaten dituztela, mutilagunak eraginak edo familian aitak eraginak.

■ **Beste emakume taldeekin harremanik izanen duzue?**

Bai. Andrearekin eta Alai-

tzeko Emakume taldearekin badugu harremanik. Andrea-tik sortu garenez, bere sustengua izan dugu eta hasi gara beste guztiakin hitz egiten.

■ **Epe laburrean zein egitasmo duzue?**

Hasi gara tailerrak eta zuzeneko zerbitzua eskaintzen. Hilaren 17an dantza afrikarrei buruzko tailerra hasiko da; bi egun geroago, 19an eta 20an, ideia feministen eboluzioa jorratuko duten ikastaroa egingen dugu. Lilaketa lasterketa ere prestatzen hasiak gara beste taldeekin... Bestalde, sexualitate zerbitzua eskainiko dugu, eta psikologo eta abokatu talde bat ariko da horretan.

■ **Nola ikusten duzue zuen adineko emakume nafarra?**

Emakumea gaur egungo gizartean nahiko galdua dago. Ez daki nora jo, norekin hitz egin. Beraz, hor bada behar bat. Aurrerapauso bat eman dugu, baina bide osoa dugu egiteko. Esaterako, gurasoen etxetik kanpo bizi nahi duen emakume gazteak latza du. Hori dela eta, bide zail hori nola egin jakiteko aholkua eman nahi diogu gazteari.

■ **Hortaz, oraindik lan asko dago egiteko?**

Gure amonen eta amen garaiak ikusita aurrera egin dugu. Beraiek zeuzkaten oztopoak agerian zeuden eta nabariak ziren; guk ditugunak ezkutuan daude, egongo ez balira bezala, baina egon badaude. Gogoz gatoz eta arazoak dituzten gazteak guregan hurbilduko direla uste dut. Aurrean bera bezalako emakume gazte bat dute entzuna ahal izateko, eta horrek konfiantza ematen du.

■ **Nola finantzatuko zaret?**

Nafarroako Gobernuko Emakumearen Institutuari dirulaguntza eskatu genion eta oraindik erantzunaren zain gaude. Bestalde, ikastaroetarako kuota bat ezarri dugu, eta bestelako taldeak eskaini ahal dizkiguten dirulaguntzekin aurrera ateratzeko asmoa dugu.

→ Irene Arrizurieta



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

EA eta PNV Nafarroan

LAU HILABETE, LAU IRAGANEN DIRA, ekaineko bozak iritsi aurretik. Kanpaina hasia da, indarrez, kupidagabe, garratz, eta halaxe segituko du. Gaitzeko garrantzia izanen dute, alimalekoa, talde guztientzat, gainera, gizarte osoarentzat, ororen buruan. UPNk badaki zer egin: bazterrak gogor astindu, euskaldunaren masailean, batez ere, gizartea tenkatu, mamuak asmatu, beldurra eragin eta botoen zarea ederki bete. PSOEk badu hamar legebiltzarkide ateratzeko adinako indarra, eta hortik goiti. Hori da bere oinarria, fidela, leiala, edozein gauza gertaturik ere, beti prest sustengua emateko. CDNri, dagoeneko, «goian bego» esaldia idatzi diote, eta behin bertze mundura joanez gero, ez da etortzerik. Ezker Batua, ezin jakin, ez ur ez ardo, ez zuri ez beltz, begi bazez EH Nafarroari, mesfidati, begira. Hauen (HB + Batzarre + egitura zehatzik gabeko jendea) ikusmira oso gora, azken hogeit urteotan bidean galdutako boto guztien eske. Noraino, ordea? Eta bukatzeko, EA eta PNV. EAJk, behingoz, Nafarroako abertzaletasunari egin diezaiokeen zerbitzurik onena hauxe da: gure herrialdean duten indarraren neurriaz jabetuta, jo dezala jo Gaztelu Plazako Alkartetxera; elkarren artean bakezkoak egin eta eratu, ahalik eta lasterren, hautes-talde bat EAren inguruan. Alkartetxekoek ere malgu jokatu beharko dute, irekitasunez, esparru horretan, barretaturik, batasun gosez dabilen jendea biltzeko. Izan ere, alderdirik gabeko jende horien artean ulergaitz gertatuko litzateke bertzeala jokatzera. Eta hori egin beharko lukete Sabin Etxean edo Zarautzen diotenari erraparatu gabe. Bertzenaz, ez badute hauteskundeei begira, batasunbide hori jorratzen, inguru horretako abertzaletasunak ez du Iruñeko udalean zinegotzirik izanen, ezta Parlamentuan ordezkari izan handitzeko aukera ere. Bistan da.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Gares:** Hammerfall eta Edguy taldeek kontzertua eskainiko dute Fundamental aretoan bihar, 23:00etan. Sarrerak 2.500 pezeta balio du.
- **Burlata:** Black Rose tabernan, Dikere taldeak joko du datorren asteartean, 20:30etan.
- **Iruñea:** Pablo Sarasate orkestrak kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan, Gaiarre antzokian.
- **Iruñea:** Datorren ostegunean Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du Gaiarre antzokian, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Lacava tabernan, Placiren margolanak hilaren 21a arte.
- **Tafalla:** Lagar erakusketa aretoan, Iberdrolak eta Kultur Etxeak antolatutako *Fosilak eta mineralak* erakusketa ikus daiteke hilaren 24a arte.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikiri Elkarteak antolatuta, zinema euskaraz Golem zinematokian. Gaur *Wallace eta Gromit* marrazki bizidunak eskainiko dituzte 20:00etan. Aurretik *Mateo txistu* film laburra emanen dute.
- **Tafalla:** Zinema Españolen, Ken Loachen *Mi name is Joe* filma eskainiko dute asteartean eta ostegunean, 20:00etan eta 22:30etan.

BERTSOLARIAK

- **Erratzu:** Panaderiako ostatuan, bertsoafaria egingen dute bihar,

21:00etan. Sebastian Lizaso, Mañukorta eta M. Lujanbio ariko dira bertso kantari.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Zaldiko Maldiko elkarteak partxis, mus eta xake lehiaketa antolatu du. Izena emateko epea otsailaren 25ean bukatuko da. Partidak larunbatean jokatu dira.
- **Iruñea:**

Fernando Pla mendizaleak *Diario de un montañero* diapositiba emanaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, Nafarroako Kirol Elkartearen Bestalde, Añamendi eta Leskunera mendi ibilaldia antolatu du etziko.

- **Iruñea:** Euskal-Jai frontisaren apaintze lehiaketa antolatu du Iruñeko Gaztetxeak. Lanak Iruñeko Alde Zaharreko San Agustin kaleko gaztetxean

aurkeztu behar dira martxoaren 15a baino lehen.

- **Burlata:** Axular elkartearen, Euskal Herriko inauterien historiari ariko dira Pedro Romeo eta Ortzadarreko kide bat gaur, 20:00etan.

- **Iruñea:** Juan Antoni Urbeltz folkloristak *Máscaras e insectos. Una lectura del Carnaval* hitzaldia gaur, 19:30etan, Navarrerria Kultur Zentroan.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—¿E para qué qué largar da Terra? ¿Non temos pan no forno?

Eta zergatik joan nahi duk Herritik? Labean ez dago-a ogirik?